LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# HIRIKO ETA HURBILEKO EKONOMIAREN KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

# REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE ECONOMÍA URBANA Y DE PROXIMIDAD

Aprobación inicial mediante acuerdo Pleno de fecha: 28-03-2022
Publicación aprobación inicial BOTHA nº 42
de fecha: 08-04-2022
Publicación aprobación definitiva BOTHA nº 68 de fecha: 10-06-2022
Entrada en vigor: 04-07-2022

**HIRIKO ETA HURBILEKO EKONOMIAREN KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**Zioen azalpena**

Hiriko eta hurbiltasuneko ekonomia txikizkako merkataritzako, ostalaritzako nahiz zerbitzuetako sektoreen batura gisa ulertu daiteke (barne hartuta bertoko produktuak ekoiztea eta saltzea), eta gure udalerriko garapen sozioekonomikorako akuilu nagusietako bat da. Bertoko merkataritza-, ostalaritza-, zerbitzu- eta ekoizleen eskaintzak berebiziko garrantzia du, inguruko udalerrietarako Laudio erreferente bihurtzeaz gain, bizitza soziala dinamizatzen duelako, kaleak bizitzaz pizten direlako, espazio publikoa hobetzen delako eta enplegua sortzen delako, beste hainbat onuraren artean.
Laudio Udalak hiri-ekonomian laguntzeko politika eta programa desberdinak bultzatzen ditu, Laudioko herritarren beharretara egokituko den sektore-eskaintza integrala eraikitzeko, berton erosi eta kontsumitzea sustatzeko eta Laudio inguruneko herrietarako merkataritza zentro ireki gisa posizionatzeko.

Nolanahi ere, hiri- eta hurbiltasun-ekonomia bultzatzeko toki estrategia partekatua eta aglutinatzailea izan behar da, erronka amankomunetatik abiatu behar du, eta Laudioko hiri ekonomia garatzeko lanean diharduten eragile publiko zein pribatu guztien inplikazioa eskatzen du.

Horrela, eta gizarte-eragile, ostalari nahiz zerbitzuetako eragile desberdinen parte-hartzea eta ordezkagarritasuna bermatze aldera sektore programa eta –proiektuen abiarazpenean, Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseilua eratu da: iritziak elkartrukatzeko, estrategiak dinamizatzeko eta Udalaren nahiz bertoko sektore-eragileen arteko elkarrizketarako gunea da.

**1. artikulua.- Araudiaren objektua**
1.- Araudi honen objektua da Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseilua arautzea. Kontsultarako, erabakitzeko eta parte hartzeko organoa da, eta helburu gisa du Udalak esku hartzeko proposamenak edo sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarako proposamenak jaso, sustatu, analizatu eta egitea merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektoreetako berezko alderdiei dagokienez (barne hartuta bertoko produktuak saltzea hurbileko salmenta-ibilbideetan), eta, betiere, Laudioko udal barrutian garapen ekonomikoa bultzatzeko helburu orokorrari jarraikiz.

2.- Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseilua Laudio Udaleko Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuari atxikiko zaio (edo zerbitzu baliokideari).

**2. artikulua.- Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseiluaren eginkizunak.**
1.- Herritarren parte-hartzeari buruzko udal-arauetatik erator litezkeen beste eginkizunak gorabehera, hauek dira Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseiluaren

**REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE ECONOMÍA URBANA Y DE PROXIMIDAD**

**Exposición de motivos**

La economía urbana y de proximidad, entendida como la suma de los sectores de comercio minorista (incluyendo la producción y venta de productos locales en circuitos de proximidad), hostelería y servicios, es uno de los motores principales del desarrollo socio-económico de nuestro municipio. Contar con una oferta comercial, hostelera, de servicios y de productores y productoras locales resulta clave para, además de posicionar a Laudio como un referente para los municipios del entorno, dinamizar la vida social, dotar a las calles de vida, mejorar el espacio público y generar empleo, entre muchos otros beneficios.

Desde el Ayuntamiento de Llodio se impulsan diferentes políticas y programas de apoyo a la economía urbana, con la misión de construir una oferta sectorial integral que se adapte a las necesidades de la ciudadanía laudioarra, fidelice las compras y el consumo en el municipio y sea capaz de posicionar Laudio como centro comercial abierto para los municipios de su entorno.

En todo caso, la estrategia local en materia de impulso a la economía urbana y de proximidad debe ser una estrategia compartida y aglutinadora, partiendo de unos retos compartidos, y requiere la involucración de todos los agentes públicos y privados que trabajan por y para el desarrollo de la economía urbana local de Laudio.

De esta manera y con los objetivos de garantizar la participación y representatividad de los distintos agentes comerciales, hosteleros y de servicios en la puesta en marcha de nuevos programas y proyectos sectoriales, nace el Consejo de Economía Urbana y de proximidad, un foro de intercambio de opiniones, de dinamización de estrategias y de interlocución entre el Ayuntamiento y los diferentes agentes sectoriales de la localidad.

**Artículo 1. Objeto del Reglamento**
1.- Es objeto del presente Reglamento la regulación del Consejo de Economía Urbana y de proximidad, como órgano consultivo, de deliberación y de participación, cuya finalidad es la de recoger, promover, analizar y hacer propuestas de actuación municipal o de colaboración público-privada, en los aspectos propios del sector comercial (incluyendo la producción y venta de productos locales en circuitos de proximidad), hostelero y de servicios, dentro del objetivo general de promover el desarrollo económico en el término municipal de Llodio.

2.- El Consejo de Economía Urbana y de proximidad estará adscrito al Servicio de Desarrollo Económico, comercio y empleo (o servicio equivalente) del Ayuntamiento de Llodio.

**Artículo 2. Funciones del Consejo de Economía Urbana y de proximidad.**
1.- Sin perjuicio de cualesquiera otras que puedan derivarse de la reglamentación municipal en materia de participación ciudadana, son funciones del Consejo de

eginkizunak:

- Hiriko eta hurbileko ekonomiaren garapenean inplikatutako pertsona, erakunde eta eragileen parte hartzea sustatzea.
- Hiriko eta hurbileko ekonomiaren esparru sektorialera zuzendutako programa eta esku-hartzeen inguruko proposamenak egitea eta Udalarekin lankidetzan aritzea horiek martxan ipintzeko.
- Udalak aurkezten dituen eta Kontseiluak egokitzat jotzen eta eskatzen dituen gaiei buruz eztabaidatzea eta horiek aztertzea, eta, bereziki, hiriko eta hurbileko ekonomiaren arloko urteko programei buruzko informazioa ematea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Hiriko eta hurbileko ekonomiaren garapenean parte hartzen duten eragile desberdinen arteko koordinazioa indartzea.
- Hiriko eta hurbileko ekonomiarekin erlazionatutako azterlanak, txostenak eta esku hartzeak sustatzea.
- Kontseilurako interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa biltzea.
- Udalerriak hiriko eta hurbileko ekonomiaren esparruan dauzkan eskumenak eta etorkizunean izan ditzakeenak ahalik eta hobekien betetzeko eta zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko egokitzat jotzen diren proposamenak formulatzea.

- Oro har, hiriko eta hurbileko ekonomiarako estrategia baten definizioan, betearazpenean eta jarraipenean parte hartzea.

2.- Eginkizun horiek ez dituzte gutxituko tokiko ordezkaritza-organoei dagozkien erabakitze ahalmenak.

**3. artikulua.- Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseiluaren osaera.**
1.- Jarraian ageri diren pertsonek osatuko dute Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseilua:

- Lehendakaria: Laudio Udalaren alkate-udalburua edo haren eskuordetza hartzen duen pertsona.
- Lehendakariordea: Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuaren (edo zerbitzu baliokidearen) zinegotzi delegatua.

- Kontseiluko kideak:
  - Osoko Bilkuran ordezkariak dituzten talde politikoetako pertsona bana.
  - Merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen sektoreak biltzen dituen eta Laudion egoitza duen elkartearen pertsona ordezkari bat.
  - Hiriko ekonomiarekin lotutako negozioetako hamaika pertsona ordezkari. Presentzia orekatua izatea zainduko da, Laudioko ehunean duten ordezkagarritasunaren arabera, merkataritzaren (bost ordezkari, eta ahal dela, horietako bi bertoko ekoizleak ordezkatzea), ostalaritzaren (hiru ordezkari) eta zerbitzuen (hiru ordezkari) azpisektoreen artean.
  - Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Batzar Sektoriala eratu bada eta funtzionatzen ari bada, batzarkide bat izendatu ahalko dute Kontseiluko

Economía Urbana las siguientes:

- Fomentar la participación directa de las personas, entidades y agentes vinculados con el desarrollo de la economía urbana y de proximidad.
- Hacer propuestas respecto a los diferentes programas y actuaciones que se dirijan al ámbito sectorial de la economía urbana y de proximidad y colaborar con el Ayuntamiento en su puesta en marcha.
- Debatir y valorar los asuntos que presente el Ayuntamiento y considere y solicite el Consejo, especialmente la información, el seguimiento y evaluación de los programas anuales en el ámbito de la economía urbana y de proximidad.

- Potenciar la coordinación entre los diferentes agentes que intervienen en el desarrollo de la economía urbana y de proximidad en el municipio.
- Promover la realización de estudios, informes y actuaciones vinculadas a la economía urbana y de proximidad.
- Recabar información de los temas de interés para el Consejo.
- Formular cuantas propuestas se estimen necesarias para el mejor funcionamiento de los servicios y el más correcto cumplimiento de cada una de las competencias que, en el ámbito de la economía urbana y de proximidad, el municipio detenta o puedan atribuirle en un futuro.
- En general, participar en la definición, ejecución y seguimiento de una estrategia integral para la economía urbana y de proximidad del municipio.

2.- Estas funciones no menoscabarán las facultades de decisión que corresponden a los correspondientes órganos representativos locales.

**Artículo 3. Composición del Consejo de Economía Urbana y de proximidad.**
1.- Compondrán el Consejo de Economía Urbana y de proximidad las siguientes personas:

- Presidencia: alcalde-presidente o alcaldesa-presidente del Ayuntamiento de Llodio o persona en quien delegue.
- Vicepresidencia: concejal delegado o concejala delegada del Servicio de Desarrollo Económico, comercio y empleo (o servicio equivalente).
- Vocalías:
  - Una persona integrante por cada grupo político con representación en el Pleno Municipal.
  - Una persona representante de la principal asociación con sede en Laudio aglutinadora de los sectores comercial, hostelero, de servicios.
  - Once representantes de negocios vinculados a la economía urbana. Se priorizará la presencia equilibrada, en base a su representatividad en el tejido laudioarra, entre los subsectores de comercio (cinco representantes, buscando que dos de ellos represente a productores y productoras locales), hostelería (tres representantes) y servicios (tres representantes).
  - En el caso de que se haya constituido y se encuentre en funcionamiento la Asamblea Sectorial de Economía Urbana y de proximidad,

kide eta Batzarraren ordezkari izan dadin.

- Idazkaria: Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuko (edo horren baliokidea den zerbitzuko) langile bat edo lehendakariak izendatutako beste pertsona bat.

2.- Kontseiluko presidenteak kasuan kasuko gaiaren arabera egokitzat jotzen badu, Kontseiluan parte hartu ahalko dute langile teknikoek, politikoek nahiz Udalaz kanpoko adituek, baina ez kontseilukide egonkor legez.

Kontseiluko kideen gehiengo absolutuak hala eskatzen duenean ere, langile espezifiko horiek parte hartu ahalko dute.

3.- Kontseiluaren osaerari dagokionez, emakume eta gizonen parte-hartzea parekidea dela bermatzen saiatu beharko da, baita kasuan kasu jorratzen diren gaietan genero-ikuspegia txertatzen ere.

4.- Oreka bilatuko da merkataritzaren, ostalaritzaren nahiz zerbitzuen sektoreak biltzen dituzten eta Laudion egoitza duten elkarteetakoren bateko bazkide diren negozioen presentziaren eta elkarteetara bazkidetu gabeko negozioenaren artean.

5.- Kontseiluko kide izateko, hiriko eta hurbileko ekonomiarekin erlazionatutako negozioen pertsona ordezkariek publikoari irekitako lokal bat eduki beharko dute Laudion, eta establezimendu fisiko iraunkorrik gabeko negozioen kasuan, egiaztatu egin beharko dute Kontseiluaren objektuarekin erlazionatutako zerbitzuak ematen dituztela Laudioko udal barrutian. Nolanahi ere, Laudio Udalarekiko obligazio fiskalak egunean izan beharko dituzte kasu guztietan. Gainera, adinez nagusi izan beharko dira. Bertoko ekoizleen ordezkarien kasuan, nekazaritza- edota abeltzaintza ustiategi bat eduki beharko dute Laudioko udal-barrutian eta udalerrian bertan saldu behar dituzte euren produktuak.

6.- Kontseiluaren batzarrak irekiak izango dira herritarrentzat, eta, beraz, entzule legez bertaratu ahalko dira Laudioko biztanleak oro.

7.- Lehendakariak zehaztuko du gaien zerrenda, Kontseiluaren ordezkaritza-lanak egingo ditu eta batzarrak moderatuko ditu. Horrez gain, lehendakaritzak berezko dituen eginkizunak ere izango ditu.

8.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, absentzia edo gaixotasun kasuetan ordezkatuko du, eta lehendakariaren eskudantziak eskuordetzan hartu ahalko ditu.

9.- Kontseiluko kideen ardura izango da Kontseiluaren batzarretan nahiz han hartzen diren erabakietan laguntzea eta aktiboki parte hartzea, eta, hala dagokienean, baita lehendakariak bozkatzeko proposatzen dituen gaien inguruko botoak ematea ere.

10.- Idazkariaren ardura da Kontseiluaren batzarren aktekin laguntzea eta horiek prestatzea, Kontseiluaren

podrá nombrar a un miembro representante como vocal.

- Secretaría: una persona trabajadora del Servicio de Desarrollo Económico, comercio y empleo (o servicio equivalente) u otra persona a designar por la Presidencia.

2.- Sin carácter estable, podrá participar en el Consejo el personal técnico o político o personas expertas que desde la Presidencia se estime necesario en cada momento, en función de las temáticas a trabajar en cada sesión del Consejo.
La participación eventual de este personal específico, será posible también, si así lo solicita la mayoría absoluta de los miembros del Consejo.

3.- La composición del Consejo procurará garantizar la participación paritaria de hombres y mujeres, así como la incorporación de la perspectiva de género en las materias de que se trate.

4.- Se buscará la presencia equilibrada entre negocios asociados a alguna de las asociaciones con sede en Laudio aglutinadoras de los sectores comercial, hostelero y de servicios, y los no asociados.

5.- Para formar parte del Consejo, las personas representantes de los negocios vinculados a la economía urbana y de proximidad deberán contar con un local abierto al público en el término municipal de Llodio o, en caso de tratarse de un negocio sin establecimiento físico permanente, demostrar que ofrecen servicios vinculados con el objeto del Consejo en el término municipal de Llodio, y hallarse al corriente de sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Llodio. Además, deberán ser mayores de edad. En el caso de representantes de productores y productoras locales, deberán contar con una explotación agro-ganadera en el término municipal de Llodio y realizar la venta de sus productos en el municipio.

6.- Las sesiones del Consejo serán abiertas a la ciudadanía, pudiendo acudir como oyentes la ciudadanía de Llodio.

7.- Corresponde a la Presidencia fijar el orden del día, representar al Consejo y moderar sus sesiones, así como cualquier otra atribución inherente a la función de Presidencia.

8.- Corresponde a la Vicepresidencia asistir y colaborar con la Presidencia, suplir a la Presidencia en los supuestos de ausencia o enfermedad, así como ejercer las atribuciones de la Presidencia por delegación.

9.- Corresponde a las personas vocales asistir y participar de manera activa en las sesiones del Consejo y las deliberaciones que el mismo se produzcan, así como, en su caso, proceder a la votación de las cuestiones que sean sometidas a su consideración por la Presidencia.

10.- Corresponde a la Secretaría asistir y levantar las actas de las sesiones del Consejo, custodiar, tramitar y

dokumentazioa gorde, izapidetu eta artxibatzea nahiz Kontseiluaren jardueren urteko memoria prestatzea, idazkariaren berez dauzkan gainerako eskudantzietatik eratortzen diren gainerako eginkizunak betetzeaz gain.

11.- Kontseiluan parte hartzen duten pertsonek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik izango euren eginkizunak betetzeagatik.

12.- Kontseiluan parte hartzen duten pertsonek eskubidea izango dute bertaratu izana eta euren eginkizunak bete izana egiaztatzeko ziurtagiria eskatzeko.

**4. artikulua.- Kontseilukideak izendatzea eta kargua uztea.**

1.- Alkate-udalburuak izendatuko ditu kontseilukide izango diren ordezkari politikoak, udal talde politiko desberdinek proposatuta. Titular bakoitzaren ordezko izateko pertsona bana ere izendatu beharko da, esanbidez, plaza hutsik egotearen ondorioz, gaixotasunaren ondorioz edo beste edozein zirkunstantzia pertsonalen ondorioz titularraren absentzia dagoenean hura ordezkatzeko.

2.- Alkate-udalburuak izendatuko ditu hiriko eta hurbileko ekonomiarekin erlazionatutako negozioen ordezkariak, honako arau hauekin bat:

a) Parte hartzeko interesa duten pertsonek berariaz zehaztuko den epean aurkeztu beharko dute horretarako eskaera. Epe hori Laudio Udalaren webgunean eta Udalak erabili ohi dituen gainerako komunikabideetan argitaratuko da.

b) Eskaeren kopuruak gainditu egiten badu Kontseiluan egon daitezkeen kideen kopurua, interesdunen ardura izango da elkarrekin ados jartzea eta titularrak zein ordezkoak izendatzea. Adostasun hori lortu ezean, zozketa egingo da interesdun guztien artean.

c) Azpisektoreetakoren batek ez badu ordezkaritza nahikoa, alkate-udalburuak aukera izango du beste azpisektoreetako ordezkari kopuru handiagoak izendatzeko.

3.- Batzarrak berak proposatuko du Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Batzar Sektorialaren ordezkari izango den pertsona, eta alkate-udalburuak izendatuko du.

4.- Kontseiluko kide izateaz gain zinegotzi diren pertsonek kargua nahitaez utzi beharko dute partaide dituen Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean.

Kontseiluko kide diren baina zinegotzi ez diren pertsonak bi urtez izango dira kontseilukide, gehienez ere. Edozelan ere, bi urteko kargualdia beste bi urtez luzatu ahalko da esanbidez, salbu eta ordezkaritzarik ez duten erakunde, eragile edo pertsonek Kontseiluan parte hartzeko interesa agertzen badute eta, horretarako, kargua uztea beharrezkoa bada.

5.- Aurreko idatzi-zatian aurreikusitako kargu-berritzeez gain, kausa hauetakoren batengatik ere utziko dute kargua kontseilukideek:

archivar la documentación de Consejo, y elaborar la memoria anual de actividades desarrolladas por el Consejo, así como cualquier otra atribución inherente a la función de Secretaría.

11.- Las personas que participan en el Consejo no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

12.- Las personas que participen en el Consejo tendrán derecho a solicitar justificante que certifique asistencia y ejercicio de sus funciones.

**Artículo 4. Nombramiento y cese de las personas vocales del Consejo.**

1.- El alcalde-presidente o alcaldesa-presidenta nombrará, a propuesta de los diferentes grupos municipales, las personas representantes políticas que formarán parte del Consejo. También se designará, expresamente, una única persona sustituta de cada titular para los supuestos de ausencia por vacante, enfermedad o cualquier otra circunstancia personal.

2.- Las personas representantes de negocios vinculados a la economía urbana y de proximidad serán nombradas por Alcaldía-Presidencia de acuerdo con las siguientes reglas:

a) Aquellas personas interesadas en participar, deberán solicitarlo en el plazo que, a tal efecto, se defina y se publique en la web municipal y resto de medios de comunicación habituales del Ayuntamiento de Llodio.

b) En el supuesto de que el número de solicitudes supere el de miembros que les corresponde en el Consejo, corresponderá a la totalidad de las interesadas, previo acuerdo entre las mismas, el nombramiento de personas titulares y suplentes. En el supuesto de no alcanzarse dicho acuerdo, se procederá a sorteo entre la totalidad de las interesadas.

c) En el supuesto de que alguno de los subsectores no tuviera representación suficiente, Alcaldía-Presidencia podrá designar un mayor número de representantes de otros subsectores.

3.- La persona representante de la Asamblea Sectorial de Economía Urbana y de proximidad será propuesta por la propia Asamblea, y nombrada por Alcaldía-Presidencia.

4.- Las personas vocales que ostenten la condición de Concejales y Concejalas cesarán, en todo caso, cuando expire el mandato de la Corporación Municipal.

Las personas vocales que no ostenten la condición de concejales/as serán miembros del Consejo por un plazo máximo de dos años desde su nombramiento. En todo caso, este período de dos años podrá ser objeto de prórroga expresa por periodos idénticos, salvo que entidades, agentes o personas no representadas expresen interés por su participación en el Consejo y dicho cese sea preciso para posibilitar esta nueva participación.

5.- Además de la renovación de cargos prevista en el apartado anterior, las personas miembros del Consejo cesarán por alguna de las siguientes causas:

• Ordezkatzen duten negozioaren jarduera amaitzeagatik.
• Euren izendapena egiteko oinarri izan zen negozioko kide izateari uzteagatik.
• Bateraezintasuna, ezintasuna edo gaitasungabetzea dela medio. Hori gertatzen denean, Kontseiluak aztertuko du kasua, Udaleko idazkari nagusiak txostena eman ostean.
• Titularrak esanbidezko ukoa aurkezten badio kontseiluko presidenteari.

6.- Esanbidezko ukoen edo beste arrazoien ondoriozko kargu hutsen kasuan, hilabeteko epean bete beharko dira, izendapenak egiteko prozedura berberari jarraituta.

**5. artikulua.- Kontseilua batzartzea eta eratzea.**
1.- Hiriko eta Hurbileko Ekonomiaren Kontseiluak urtean bitan egingo ditu ohiko batzarrak, gutxienez. Kontseiluari berari dagokio legegintzaldi bakoitzaren hasieran egingo den batzarrean zehaztea ohiko batzarren maiztasuna, baita horien eguna eta ordua.

Aurrekoa gorabehera, urgentzia, komenigarritasuna edo beharra dela medio egokitzat jotzen denean, batzar berezietarako deialdiak egin ahalko dira. Alkate-udalburuak deituko ditu batzar berezi horiek, bere ekimenez edo, gutxienez, kontseilukideen heren batek eskatuta. Gehienez ere, bi batzar berezi egin ahalko dira urtean.

2.- Kontseiluaren batzarra baliozkoa izan dadin, lehenengo deialdian, lehendakaria edo lehendakariordea, idazkaria eta kontseilukideen heren bat bertaratu beharko dira, gutxienez. Gutxieneko quorum hori lortu ezean, Kontseiluaren batzarraren bigarren deialdia egingo da deialdian zehaztutako ordua baino hamabost minutu beranduago, eta, baliozkoa izateko, gutxienez, lehendakaria edo lehendakariordea, idazkaria eta 2 kontseilukide bertaratu beharko dira.

3.- Lehendakariak batzar telematikoak ere deitu ahalko ditu, gainerako kontseilukideen iritzia entzun ostean, eta, betiere, kontseilukideek aho batez onartzen badute. Nolanahi ere, kontseilukide bakoitzaren ardura izango da batzar horietan parte hartzeko behar diren bitartekoak edukitzea.

**6. artikulua.- Kontseiluaren deialdia.**
1.- Kontseiluaren lehendakariak egingo du Kontseiluaren batzarretarako deialdia, posta elektronikoz. Deialdiaren mezu elektronikoan jaso beharko dira gaien zerrenda, data eta batzarraren lekua. Batzarra telematikoki egiten bada, horren berri eman eta adierazi egin beharko da horretarako zer sistema erabiliko den.

Ohiko batzar presentzialak nahiz telematikoak Kontseiluaren batzarraren eguna baino bost lanegun lehenago deitu beharko dira, gutxienez.

2.- Batzar berezien kasuan, Kontseiluaren batzarraren eguna baino bi lanegun lehenago egin igorri beharko da

• Por cese de la actividad del negocio al que representan.
• Por dejar de pertenecer al negocio que motivó su nombramiento.
• Por incompatibilidad, incapacidad o inhabilitación, que evaluará el Consejo, previo informe de Secretaría General del Ayuntamiento.

• Por renuncia expresa de su titular presentada a la Presidencia del Consejo.

6.- En el caso de vacantes por renuncia expresa u otro motivo, las vacantes se proveerán, en el plazo máximo de un mes, en la misma forma establecida para su nombramiento.

**Artículo 5. Reunión y constitución del Consejo.**
1.- El Consejo de Economía Urbana y de proximidad se reunirá, ordinariamente, como mínimo, dos veces al año. Corresponderá al propio Consejo, en reunión convocada a principio de cada legislatura, establecer la frecuencia de dichas sesiones ordinarias, así como día y hora de las mismas.

No obstante lo anterior, por razones de urgencia, conveniencia o necesidad, el Consejo podrá celebrar sesiones extraordinarias. Estas sesiones extraordinarias serán convocadas por la Presidencia, a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte del número de miembros del Consejo, con un máximo de 2 sesiones extraordinarias al año.

2.- El Consejo se reunirá válidamente con la presencia, en primera convocatoria, de, al menos, la Presidencia o Vicepresidencia, la Secretaría y un tercio de las personas vocales componentes del mismo. De no alcanzarse dicho quorum mínimo, el Consejo se reunirá válidamente en segunda convocatoria, quince minutos más tarde de la hora fijada en la convocatoria con la presencia, de, al menos, la Presidencia o Vicepresidencia, la Secretaría y 2 vocales.

3.-La Presidencia podrá convocar sesiones telemáticas, oído el parecer del resto de personas miembros del Consejo y siempre por unanimidad de las mismas. En todo caso, corresponderá a cada miembro del Consejo la dotación de los medios necesarios para su participación en las mismas.

**Artículo 6. Convocatoria del Consejo.**
1.- La convocatoria de las sesiones del Consejo se realizará por la Presidencia del Consejo, a través de correo electrónico, indicando el orden del día, la fecha y hora y el lugar de reunión. En el caso de que la sesión se celebre por medios telemáticos, se indicará tal carácter y el sistema usado para su desarrollo.

Tanto las sesiones ordinarias presenciales como las telemáticas deberán ser convocadas con una antelación mínima de cinco días hábiles a la fecha de celebración de la sesión del Consejo.

2.- En sesión extraordinaria, la convocatoria será remitida con una antelación mínima de dos días hábiles a la fecha

deialdia, gutxienez.

3.- Batzarren deialdiak egiteko beharrezko aurretiazko egunak zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko ez deialdia egiten den eguna, ezta Kontseiluaren batzarra egingo den eguna ere.

**7. artikulua.- Kontseiluko eztabaidak eta erabakitze-sistema.**
1.- Kontseiluko lehendakariak gidatuko ditu batzarrak, eztabaidak moderatuko ditu eta batzarra behar bezala egiten dela bermatzeko egoki diren neurriak hartuko ditu.

2.- Erabakiek eta iritziek hausnarketa-izaera izango dute Udalaren erabakitze-organoentzat, sekula ez izaera loteslea. Nolanahi ere, Kontseiluan lortzen diren konklusioak eta emaitzak Kontseiluaren ostean egiten den hurrengo informazio batzordean azalduko dira, erabakitzeko zilegitasuna duten udal organoek kontuan har ditzaten.

3.- Lehendakariari dagokio erabakitzea Kontseiluan zer gai bozkatuko den. Kasu horretan, Kontseiluan emandako boto baliodunen gehiengo sinplea beharko da irizpenak emateko.

4.- Bozketak ohikoak izango dira eta baiezko, ezezko nahiz abstenitzeko botoak eman ahalko dira. Ezingo da bozkatzeko eskubidea eskuordetu.

Berdinketarik badago, lehendakariaren kalitatezko botoak hautsiko du.

Langile teknikoek, Kontseiluaren idazkariak eta kontseilukide finko izan gabe ere batzarretan parte hartzen duen beste pertsonek ezingo dute bozketetan parte hartu, aurreko eztabaidetan parte hartzeko duten aukera gorabehera.

**8. artikulua.- Kontseiluaren aktak.**
1.- Idazkariak Kontseiluaren batzar bakoitzaren akta egingo du, zeinetan datu hauek jaso beharko baitira: bertaratutako pertsonak, gaien zerrenda, hausnartzeko gaien puntu nagusiak, batzarraren edukiaren laburpen xehea, egindako bozketak eta horien emaitzak.

2.- Kontseiluaren batzarren aktak Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuan (edo zerbitzu baliokidean) artxibatuko dira eta Udalaren webgunearen bidez argitaratuko dira.

**9. artikulua.- Interpretazioa eta garatzeko arauak.**
Alkate-udalburuari dagokio araudi honetan jasotako artikuluak interpretatu, argitu eta garatzeko behar diren ebazpenak ematea, eta, beharrezkoa denean, antzeman litezkeen lege- edota arau hutsuneak zuzentzeko ebazpenak ere emango ditu, eta beharrezko xedapenak egingo ditu horien aplikazioa hobetzeko, betiere, Udaleko idazkari nagusiak txostena eman ostean. Nolanahi ere, alkate-udalburuak ebazpen horiek aditzera eman beharko dizkie Osoko Bilkurari nahiz Kontseiluari berari, ebazpenak eman ondorengo lehenengo batzarrean.

de celebración del Consejo.

3.- Para el cómputo de los días de antelación con los que debe convocarse la sesión, no se tendrán en cuenta ni el día de convocatoria ni el día de celebración de la sesión del Consejo.

**Artículo 7. Debate y sistema de deliberaciones del Consejo.**
1.- La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, moderará el desarrollo de los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden en su desarrollo.

2.- Las decisiones y opiniones tendrán carácter deliberativo, nunca vinculante, para los órganos decisorios municipales. En todo caso, las conclusiones o resultados emitidos en el seno del Consejo serán expuestos en la Comisión Informativa inmediatamente posterior a la celebración del mismo, a efectos de su consideración por los órganos municipales legitimados para decidir.

3.- Corresponderá a la Presidencia decidir las cuestiones que son sometidas a votación en el seno del Consejo. En tal supuesto, los dictámenes del Consejo se adoptarán por mayoría simple de los votos válidamente emitidos.

4.- Las votaciones serán ordinarias y el voto se emitirá en sentido afirmativo, negativo o abstención, no siendo posible la delegación de voto.

En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad.

El personal técnico, la Secretaría del Consejo y cualquier otra persona que participe en la sesión, no designada como miembro estable del Consejo no podrán participar en las votaciones, sin perjuicio de su participación en los debates previos.

**Artículo 8. Actas del Consejo.**
1.- De cada sesión que celebre el Consejo se levantará acta por la Secretaría, especificando las personas asistentes, el orden del día y los puntos principales de las deliberaciones, un extracto comprensivo del contenido de la sesión, así como las votaciones habidas y resultado de las mismas.

2.- Las actas de las sesiones del Consejo se archivarán en el Servicio de Desarrollo Económico, comercio y empleo (o servicio equivalente) y se harán públicas a través de la web municipal.

**Artículo 9. Interpretación y normas de desarrollo.**
Corresponderá a la Alcaldía-Presidencia emitir las resoluciones precisas para interpretar, aclarar y desarrollar cuantos artículos comprenden el presente Reglamento, así como en su caso, para cubrir las lagunas legales o reglamentarias que pudieran presentarse y adoptar las disposiciones necesarias o convenientes para su mejor aplicación, previo informe de la Secretaría General del Ayuntamiento. En todo caso, la Alcaldía-Presidencia deberá dar cuenta al Pleno y al propio Consejo para su conocimiento de dichas resoluciones en

la primera sesión que se celebre tras su adopción.

**Xedapen indargabetzailea**
Araudi honek indargabetu egiten ditu ukitutako Kontseilua arautzeko lehenago onetsitako beste guztiak, baita horiek garatzeko eman ziren udal-erabaki eta ebazpen guztiak ere.

**Disposición derogatoria**
El presente Reglamento deroga cualesquiera otros aprobados con anterioridad reguladores del consejo afectado, así como los acuerdos o resoluciones municipales dictados en su desarrollo.

**Azken xedapena**
Udalbatzarraren Osoko Bilkurak araudi hau behin betiko izaeraz onetsi ostean, ALHAO-n argitaratuko da osorik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege-testu beraren 65.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, indarrean sartuko da hamabost (15) laneguneko epea igarotakoan, aipatutako argitaratzea egiten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

**Disposición final**
Este Reglamento, una vez aprobado definitivamente por el Pleno de la Corporación se publicará íntegramente en el BOTHA, de conformidad con cuanto establece el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y entrará en vigor transcurrido el plazo de quince (15) días hábiles, previstos en el artículo 65.2 del mismo texto legal, contados desde el día siguiente al de citada publicación.